

BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN SAILA

4094

AGINDUA, 2023ko uztailaren 4koa, Osasuneko sailburuarena, 2023. urtean osasun-arloko profesionalak prestatzeko bekak eta laguntzak emateko deialdia egin eta arautzen duena.

Osasun Sailaren helburuetako bat da osasun-zerbitzuen kalitatea hobetzea, kolektibo sanitarioaren prestakuntza handiagoaren bidez. Horretarako, epe ertain eta luzeko estrategia bat planteatu du, EAEko sistema sanitarioa langileek praktika profesionalean duten gaikuntza areagotzeko.

Horrela, prestakuntzaren bidez, kualifikazio optimoa bermatzen du, eta langileen garapen profesionala sendotzen.

Beka eta laguntza horiek emanez, bi helburu hauek betetzea sustatu nahi da: batetik, zentro nazionaletan eta atzerrikoetan graduondoko prestakuntza-jarduerak egitea, arlo jakin batzuetan gaitasun aurreratuak eskuratzera bideratuta daudenak, eta Osasun Sailak estrategikotzat jotzen dituenak bere helburuak betetzeko; bestetik, atzerriko zentroetan prestakuntza-egonaldiak egitea, prestakuntza-programa indibidualizatuak egiteko, osasunaren zientziekin lotutako arlo guztietan ezagutza eta trebetasunak areagotze aldera.

Dirulaguntza-lerro hau bi xedapen hauetan jasota dago: Osasuneko sailburuaren 2023ko martxoaren 14ko Agindua (Osasun Sailaren 2023ko ekitaldirako dirulaguntzen plan estrategikoa onartzen duena) eta abenduaren 23ko 15/2022 Legea (Euskal Autonomia Erkidegoko 2023. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen).

Horregatik, kontuan hartuz Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen martxoaren 23ko 116/2021 Dekretuaren 4. artikuluan ezarritako eskumenak, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

1.– Agindu honen xedea da bekak eta laguntzak emateko deialdi bat egitea eta arautzea, osasun-arloan 2023. urtean hasitako prestakuntza-jarduerak finantzatzeko. Honako modalitate hauek daude aukeran:

a) Estatuko unibertsitate-ikastegiei edo Osasun Ministerioaren mendeko osasun-institutuei, edo autonomia-erkidegoen mendeko osasun-eskolei emandako graduondoko ikastaroetan parte hartzea; edo aipatutako entitateek ematen ez badituzte ere, hitzarmen baten bitartez halako izaera lortzen duten ikastaroetan parte hartzea, baldin eta unibertsitatearen graduondoko titulu propioen bat sortzen badute.

Doktorego-programak deialdi honetatik kanpo geratzen dira.

Prestakuntza-jardueren helburua izango da kompetentzia aurreratuak eskuratzeko, honako arlo hauetan:

– Kudeaketa sanitarioa: kostu sanitarioen eta ospitale-kostuen kudeaketa eta kontrola, merkataritza, giza baliabideak, zerbitzu sanitarioen produktibitatea eta plangintza, kalitatearen kontrola, arreta soziosanitarioa, langile sanitarioen arriskuak, antolakunde sanitario motak, kudeaketa

sanitarioko politikak, plangintza estrategikoa, zerbitzu sanitarioen ikuskapena eta kudeaketaren tratamendu informatikoa.

- Osasun publikoa: haurren obesitatearen eta elikadura-nahasmenduen prebentzioa; tresna metodologikoen ezarpena (estatistika eta epidemiologia); plangintza eta ebaluazioa (beharra, eskaintza eta eskaria, efikazia, eraginkortasuna, efizientzia eta ekitatea, adierazleak; gaixotasunen prebentzio- eta babes-estrategiak; osasunaren sustapena).

- Zaintza aringarriak: alderdi kulturalak, sanitarioak, psikosozialak, legezkoak eta etikoak; alderdi horiek eskaintzen dituzten zerbitzuen kudeaketa; ikerketa, sintomen kontrola eta erabakiak hartzea.

- Familia eta komunitateko medikuntza: horren garapena sustatzea eta bultzatzea.

- Integrazio asistentziala: zainketa sanitarioak antolatzea, pazienteen emaitzak hobetzea helburutzat hartuta, prozesu asistentzialak integratuz, EAEko Arreta Integratuaren Planean jasotakoaren arabera.

- Suizidioa prebenitzeko estrategiak: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/estrategia_preencion_suicidio/es_def/adjuntos/euskadin-suizidioa-prebenitzeko-estrategia.pdf

- Euskadiko Onkologia Planeko ekintzak: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/plan_oncologico_2018_2023/eu_def/adjuntos/euskadi-onkologia-plana-2018-2023.pdf

- Dementzia neurodegeneratiboak: Alzheimer-en gaixotasuna, Parkinson-en gaixotasuna eta bestelako parkinsonismoak, alboko esklerosi amiotrofikoa (AEA) eta esklerosi anizkoitza.

- Gaixotasun neuromuskularrak: Duchenne-ren muskulu-distrofia, Steinert-en gaixotasuna, muskulu-atrofia espinala eta miastenia larria.

- Generoa eta osasuna: generoaren eta osasunaren arloko prestakuntza integrala, zeinaren helburua baita genero-ikuspegia txertatzea zerbitzu sanitarioetako jardura asistentzian, plangintzan eta kudeaketan, arlo horretako ikerketa-proiektuak egin eta ebaluatzea, ezagutza zientifikoa handituko duten osasunaren eta generoaren arloko ikerketak proposatu eta garatzea, eta arlo sanitarioan genero-indarkeriako kasuak detektatzea eta tratatzea.

- Eutanasia.

- Gaixotasun kardiobaskularrak: kardiopatia iskemikoa eta iktusa.

- Zahartzea eta kronikotasuna.

- Bioetika.

b) Atzerriko unibertsitateek emandako graduondoko ikastaroak egitea, a) modalitatean aipatutako arloetan konpetentzia aurreratuak eskuratzera bideratuta badaude.

Doktorego-programak deialdi honetatik kanpo geratzen dira.

c) Atzerriko zentro sanitarioetan edo ikerketa sanitarioko zentroetan prestakuntza-egonaldiak egitea, osasun-zientziekin lotutako arlo guztietan ezagutzak eta trebetasunak areagotzera bideratutako prestakuntza-programa indibidualizatuak egiteko.

2.– Diruz lagundutako graduondoko ikastaroen karga akademikoa bat etorriko da egindako ikasturteari dagokion programan jasotako ETCS kredituekin. Titulu ofizialak zein propioak lortzera bideratu daitezke ikastaroak.

3.– Ez da bekarik edo laguntzarik emango Osasun Sailak diruz lagundutako prestakuntza-jarduerak burutzeko.

2. artikulua.– Onuradunak.

Honako baldintza hauek betetzen dituzten pertsona fisikoak izan daitezke beken eta laguntzen onuradun:

a) Goi-mailako edo erdi-mailako unibertsitate titulu bat izatea.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko udalen batean erroldatuta egotea, bekarako edo laguntzarako eskabidea aurkeztu baino gutxienez urtebete lehenagotik.

c) 1. artikuluan zehazten diren prestakuntza-jardueretako bat egitea.

d) Ez egotea egoiliar-sistemaren bidezko prestakuntza-aldian.

e) Eskabidea aurkezteko egunean eskatzailea arlo sanitarioan ari bada lanean, eskabidearekin batera lantokiko zuzendaritzaren baimena aurkeztu beharko du prestakuntza-jarduera egiteko; baimen horretan adieraziko da prestakuntza-egonaldiak edo graduondoko ikastaroak eskatzailearen jarduera profesionalarekiko duen egokitzapen-maila: handia, ertaina edo txikia. Baimen hori ez da beharrezkoa izango prestakuntza online egiten bada.

Beka edo laguntzen onuradunek, gainera, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorreko 13. artikuluan bildutako baldintza orokorrak bete beharko dituzte:

1) Onuradun izan daitezke dirulaguntza jasotzea onargarri egiten duen egoeran dauden pertsonak, edo oinarri arautzaileetan eta deialdian aurreikusitako baldintzak betetzen dituztenak.

2) Egoera hauetako edozeinetan dauden pertsonak ezingo dira izan lege honetan arautzen diren dirulaguntzen onuradun, salbu eta, dirulaguntzaren izaera dela-eta, haren araudiak salbuespentzat jotzen badu:

a) Dirulaguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren epai irmo bidez zigorra jaso badute, edo zigor hori jaso badute delitu hauetakoren bat egiteagatik: prebrikazioa, funtzionario-eroskeria, diru publikoen erabilera bidegabea, influentzia-trafikoa, iruzurra eta ordainarazpen ilegala edo hirigintza-delituak.

b) Borondatezko konkurtsoa deklaratzeko eskaria egin badute, prozeduraren batean kaudimengabekotzat jota badaude, hartzekodunen konkurtsoan deklaratura badaude (salbu eta horretan itun batek eragingarritasuna hartu badu), epailearen esku-hartzearen mende badaude, edo Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera desgaituta badaude, betiere konkurtsoa kalifikatzeko epaian finkatutako desgaitze-aldia amaitu gabe badago.

c) Administrazioarekin egindako kontraturen baten suntsiarazpen irmoa eragin badute, kausaren batean errudun deklaraturia izateagatik.

d) Pertsona fisikoa Estatuko Administrazio Orokorreko goi-kargudunen jarduna arautzeko martxoaren 30eko 3/2015 Legean edo Herri-administrazioen Zerbitzura dauden Langileen Batearazintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aipatutako kasuren batean sartuta badago, edo Hauteskundearen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautetsiak badira, bertan ezarritako baldintzetan edo arlo horiek arautzen dituen autonomia-erkidegoko araudietan ezarritakoetan.

e) Indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ez betetzea, erregelamenduz zehazten den moduan.

f) Egoitza fiskala izatea araudiaren arabera zerga-paradisu gisa sailkatutako lurralde edo herrialderen batean.

g) Ordaindu gabe izatea dirulaguntzak itzultzearen ondoriozko betebeharrak, erregelamenduz zehazten denarekin bat etorritik.

h) Dirulaguntzak lortzeko aukera galtzea dakarren ebazpen irmo bidez zehatuta egotea, lege honetan edo beste batzuetan zehaztutakoari jarraituz.

i) Ezingo dira onuradun izan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 11.3 artikulua bikoizten paragrafoan aurreikusitako taldeak, baldin eta kideetakoaren batek aurreko debekuren bat badu.

Ezin izango zaie laguntzarik edo dirulaguntzarik eman sexu-arrazoiengatik diskriminazioa eragiten duten jardueri, ez eta sexu-arrazoiengatik diskriminazioko egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapena jaso duten pertsona fisiko edo juridikoei ere, dagokion zehapenean ezarritako epean (Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 2. artikulua).

Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete direla egiaztatzeko, administrazio-ziurtagiri positiboak aurkeztuko dira, zerga-organo eskudunek edo Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emanak, hurrenez hurren. Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzak, espedientearen organo kudeatzailea den aldetik, bere elkarreragingarritasun-zerbitzuen bidez, zuzenean eskatuko dizkie dokumentu horiek organo eskudunei. Aurka egonez gero, pertsona edo erakunde interesdunak berak aurkeztu beharko ditu dagozkion ziurtagiriak (Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 6. artikulua).

Gainera, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren 23.3 artikulua xedatutakoaren arabera, eskabidearekin batera, arauan eta deialdian ezarritako agiriak eta informazioa bidali beharko dituzte interesdunek; dena den, ez dute halakorik bidali beharko baldin eta administrazio jardulearen edozein organoren esku badaude eskatutako dokumentuak, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

3. artikulua.– Aurrekontua eta organo kudeatzailea.

1.– 2023. urtean, 180.000 euro bideratuko dira beka eta laguntzak finantzatzera; horietatik, 108.000 euro 2023ko ekitaldiari dagozkio, eta 72.000 euro, berriz, 2024ko ekitaldiari.

2.– Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzak kudeatuko ditu beka eta laguntzak.

4. artikulua.– Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.

1.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak kategoria hauetan multzokatzen dira:

a) Beka: mantenu-gastuak hartzen ditu barnean, hala atzerriko unibertsitateetan ematen diren graduondoko ikastaroetakoak, nola atzerriko osasun-zentroetako edo ikerketa sanitarioko zentroetako prestakuntza-egonaldietakoak. Barnean hartzen du, halaber, prestakuntza-egonaldietan

onuradunarekin bizi diren adingabeko seme-alabek sortutako gastuak –bidaia izan ezik– ordain-tzeko laguntza-osagarria, jarraian hiru (3) hilabete baino gehiago emanaz gero egonaldian.

b) Laguntza: bidaia-gastuak, matrikula eta ostatua hartzen ditu barnean.

2.– Laguntzen onuradunak izan daitezke, soilik, prestakuntzako jarduerarekin batera ordain-dutako beste jardueraren bat egiten duten pertsonak, eta laguntzak eta bekak jaso ahalko dituzte ordaindutako jarduerarik egiten ez dutenek.

3.– Honako hauek dira diruz lagun daitezkeen gehieneko zenbatekoak:

a) Joan-etorrien kasuan, ostatu-gastuak: mila (1.000) euro hilean.

b) Matrikula-gastuak: zortzi mila (8.000) euro.

c) Bidaia-gastuak: bi mila (2.000) euro.

d) Laguntza-osagarria: hirurehun (300) euro hilean, seme-alaba bakoitzeko.

e) Mantenu-gastuak (atzerrian egindako prestakuntza-ikastaro eta -egonaldietarako bakarrik; 1.1 artikuluko b) eta c) modalitateak): bostehun (500) euro hilean.

Diruz lagundu daitezkeen gehieneko zenbatekoen batura ezin izango da inola ere 10.000 eurotik gorakoa izan.

4.– Emango den beka edo laguntza, gehienez, ikasturte batekoa izango da. Diruz lagundutako graduondoko ikastaroetan, ikasturteari dagokion prestakuntza-programan jasotako ETCS kreditu guztiak gainditu beharko dira.

5. artikulua.– Emateko prozedura eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Norgehiagoka-prozedura erabiliko da bekak eta laguntzak emateko.

2.– Eskabideak alderatzeko prozesua 6.2 artikuluan aurreikusitako bi faseetan burutuko da.

3.– Eskabideak eta horien haztapena alderatzeko, ebaluazio-irizpide hauek erabiliko dira:

a) Egonaldiaren edo graduondoko ikastaroaren prestakuntza-planaren edukiek lanbide-jarduerarekin duten erlazioa; edo, langabezia badago, eskatzaileak egin dituen ikasketekin duten erlazioa (30 edo 15 puntu):

– 30 puntu emango dira, baldin eta eskatzailearen lanpostuari esleitutako eginkizunak orain edo etorkizunean hobetzea bada prestakuntza-ekintzaren helburua.

– 15 puntu emango dira, prestakuntza-ekintzaren helburua bada lana bilatzen eta lanbidearen garapenean eta sustapenean laguntzea, hau da, gaitasuna eta garapen profesionala ematea eskatzailearen lanpostua ez den beste baten zereginak bete ahal izateko.

b) Egonaldiaren edo ikastaroaren kalitatea (20 puntu gehienez):

b.1.– Graduondoko ikastaroetan parte hartzea atzerriko unibertsitateetan: kontuan hartuta unibertsitateak zer toki duen Academic Ranking of World Universities–ARWU sailkapenaren azken argitalpenean: <http://www.shanghairanking.com/ARWU2020.html>

– lehenengo 100 postuen artean badago: 20.

– 101. eta 200. postuen artean badago: 15.

- 201. eta 300. postuen artean badago: 10.
 - 301. eta 500. postuen artean badago: 5.
 - b.2.– Estatuko unibertsitateek emandako graduondoko ikastaroetan parte hartzea:
 - Euskal Herriko Unibertsitatea: 20 puntu.
 - Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako unibertsitateak: 17 puntu.
 - Estatuko gainerako unibertsitateak, kontuan hartuta unibertsitateak zer maila duen BBVA-IVIE Fundazioaren Espainiako unibertsitateen U sailkapenaren edizio eguneratuenean (<https://www.u-ranking.es/analisis.php>):
 - lehenengo 4 mailak: 15.
 - 5., 6. eta 7. mailak: 11.
 - 8., 9. eta 10. mailak: 8.
 - 11. maila eta goragokoak: 5.
 - b.3.– Atzerriko osasun-zentroetan edo osasun-ikerketako zentroetan egindako prestakuntza-egonaldiak:
 - Scimago Institutions Rankings-en edizio eguneratuenean unibertsitateak duen mailaren arabera (El Scimago Institutions Rankings ikerketarekin lotutako erakunde akademikoen ranking bat da, adierazle baten arabera sailkatua. Adierazle horrek Ikerketa, Berrikuntza eta Inpaktu Sozialaren emaitzetan oinarritutako hiru indize konbinatzen ditu) Research and Innovation Overall Rankings - Medicine 2023 (scimagoir.com)).
 - lehenengo kuartila: 20.
 - bigarren kuartila: 15.
 - hirugarren kuartila: 10.
 - laugarren kuartila: 5.
 - c) Eskatzaileak Euskadiko sistema sanitarioarekin eduki duen lan-harremanaren berri, eskabi-dea aurkeztu eta laguntzak ematen diren arteko aldian (10 puntu gehienez):
 - Langile finkoa izatea, edo espezialitatea –egoiliar gisa– amaitua izatea agindu hau argitaratu aurreko bi (2) urteetan: 10.
 - Bitarteko langilea: 5.
 - Behin-behinekoa, ordezkia, norberaren kontura lan egiten duten pertsonak eta sektore pribatuko soldatapekoak: 2.
6. artikulua.– Eskabideak ebaluatzea, diru-zenbatekoak zehaztea eta ebazpena proposatzea.
- 1.– Balorazio-batzorde batek ebaluatuko ditu eskabideak, dirulaguntzen diru-zenbateko indibidualak zehaztuko eta dirulaguntza eman edo ukatu behar den proposatuko, eta artikuluko honen 2., 3., eta 4. apartatuetan xedatutakoaren arabera arituko da. Batzordeak kide hauek izango ditu:
- a) Batzordeburua: Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendaria (Mikel Sánchez Fernandez).

b) Bokalak:

– Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzuko Asistentzia Sanitarioko zuzendaria (Víctor Bustamante Madariaga).

– Ordezkoa: Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzuko Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzako teknikaria (Andoni Arcelay Salazar).

– Irakaskuntza eta Garapen Profesionaleko Zerbitzuko arduraduna (Antonia Daza Gutierrez).

– Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzuko Prestakuntza Zerbitzuko burua (Francisco Serna Rodriguez).

c) Idazkaritza: Irakaskuntza eta Garapen Profesionaleko Zerbitzuko teknikaria (Miren Gixane Dañobeitia Olaeta).

2.– Bi fasetan egingo da eskabideak ebaluatzeko eta zenbateko indibidualak zehazteko prozesua:

a) Lehenengo fasea: programa honen azken hiru (3) deialdietan bekarik edo laguntzarik lortu ez duten pertsonen aurkeztutako eskaerei dagozkien diru-zenbatekoak ebaluatu eta finkatuko dira.

Baldin eta 3. artikuluan adierazitako zuzkidura ekonomikoa ez bada aski gutxienerako puntuazioa lortu eta gainerako baldintzak bete dituzten eskabide guztiei erantzuteko, apartatu honetan adierazitako zenbatekoetan, zuzkidura ekonomikoa eskabideen artean hainbanatuko da, hasieran kalkulaturako kopuruen proportzio berean.

b) Bigarren fasea: lehenengo faseko laguntzak emateko proposamenak ez badu aurrekontua agortu, gainerako eskabideak ebaluatu eta dagozkien zenbatekoak ezarriko dira.

Soberako zenbatekoa, lehenengo fasea egin ondoren, ez bada nahikoa bigarren fase honetako eskabide guztiei erantzuteko, gutxienerako puntuazioa lortuta eta eskaturako gainerako baldintzak beteta, atal honetan adierazitako zenbatekoetan eskaera horien artean hainbanatuko da, hasieran kalkulaturako zenbatekoen proportzio berean, eta hainbanaketa horrek ez die eragingo lehen fasean kalkulaturako laguntzei.

3.– Hauek dira eskabideak ebaluatzeko eta zenbatekoak zehazteko prozeduraosatzen duten jarduketak:

a) Egiaztatzea eskabideek 1. eta 2. artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen dituztela eta, hala badagokio, zuzenketa egiteko eskaria egitea 10.5 artikuluan ezarritakoaren arabera.

b) Kanpoan uztea 1. eta 2. artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten eskabideak.

c) 1. eta 2. artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskabideak ebaluatzea, 5.3 artikuluan ezarritako irizpide eta haztapenen arabera.

d) Kanpoan uztea hogeita hamar (30) puntu baino gutxiago lortu dituzten eskabideak, hori baita izan beharreko gutxienerako puntuazioa.

e) Gutxienez hogeita hamar (30) puntu lortu dituzten eskabideei dagokien gastu diruz lagungarria kalkulatzeko: eskabidean identifikaturako aurrekontua bat etorriko da 4. artikuluan ezarritako muga eta zehaztasunekin.

f) Zenbatekoak zehaztea, diruz lagun daitekeen gastuari ehuneko hauek aplikatuz:

– % 100: 50 puntu edo gehiago lortu dituzten eskabideak.

– % 90: 41 eta 49 puntu artean lortu dituzten eskabideak.

– % 80: 30 eta 40 puntu artean lortu dituzten eskabideak.

4.– Zenbatekoak zehaztu ostean, ebazpen-proposamena egin eta Osasuneko sailburuordeari bidaliko zaio, zeinak hauek zehaztu beharko dituen eskabide bakoitzari dagokionez:

a) Dirulaguntza ematea: onuradunaren nortasuna, diruz lagundutako prestakuntza-jarduera eta dirulaguntzaren zenbateko osoa.

b) Dirulaguntza ukatzea: eskatzailearen nortasuna, dirulaguntzaren xede den prestakuntza-jarduera eta dirulaguntza ez emateko arrazoia.

c) Artxibatzea: eskatzailearen nortasuna, dirulaguntzaren xede den prestakuntza-jarduera eta artxibatze arrazoia.

7. artikulua.– Ebazpena.

1.– Osasuneko sailburuordearen ebazpen baten bidez amaituko da prozedura, zeinak 6.4 artikuluan identifikatutako datuak adieraziko baititu. Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuz jakinaraziko da.

2.– Ebazpena argitaratzeko epea hiru (3) hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera. Aipatutako epea igaro eta gero ez bada ebazpenik argitaratu, interesdunek ulertu ahal izango dute euren eskabidea ezetsi egin dela.

3.– Ebazpen horren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahalko diote Osasuneko sailburuari, hilabeteko epean (1), ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

8. artikulua.– Uko egitea.

Dirulaguntzari uko egin nahi dioten onuradunek idazki bat aurkeztu beharko dute Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzan, 10.3 artikuluan aurreikusitako eran, hamar (10) eguneko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Onuradunak ez badio uko egiten dirulaguntzari epearen barruan, ulertuko da onartu egin duela, bat etorritz Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta itzulketei buruzko abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren 2.2.b) artikuluekin.

9. artikulua.– Beken eta laguntzen bateragarritasuna.

1.– Bekak ez dira bateragarriak jarduera bera finantzatzeko emandako bestelako dirulaguntzekin.

2.– Laguntzak, ordea, bateragarriak dira jarduera bera finantzatzeko beste dirulaguntza batzuekin; baina, guztizko zenbatekoak gainditzen baditu jarduerak sortzen dituen gastuak, emandako laguntzaren zenbatekoa murriztuko da dagokion gehieneko mugaraino.

10. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Eskabideak egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan –<https://www.euskadi.eus/servicios/0086110> web-orrian– eskuragarri dauden eredu normalizatuak beteko dira, eta, horrekin batera, prestakuntza-egonaldiaaren edo graduondoko ikastaroaren prestakuntza-plana bidali beharko da, non jasota egongo baitira programa, edukia eta jarduerak.

Hauek dira web-orrian eskura dauden agiri normalizatuak:

a) Eskabide-eredua eta, horrekin batera, eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69. artikulua eskatu bezala, haxe egiaztatuko duena:

- Xede eta helburu berarekin laguntzarik jasotzen ari den edo ez administrazio publikoen edo erakunde pribatuen eskutik.

- Ez duela ordaintzeke dituen laguntzak itzultzeko betebeharririk.

- Beste administrazio publiko zein pribaturen bati laguntza eskatu dion eta onartu zaion edo ebazteko zain dagoen.

- Ez duela zigorrik jaso, ez penalik ez administratiborik, laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzea galarazten dionik.

- Ez duela laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzeko legezko debekurik, berariaz kontuan hartuta sexu-diskriminazioagatik gertatutakoak.

- Eskatzaileak ez duela ikusten ezintasunik diruz lagundutako prestakuntza-jarduerei dedikazio egokia eskaintzeko, ordaindutako lana edo beste edozein egiteko duelako.

- Aipatutako betebeharrak betetzen jarraituko duela, aitortza edo ariketa horri dagokion aldian, eta baldintzen edozein aldaketa jakinaraziko zaiola administrazioari, baldintzak osorik ez betetzea eta hirugarrenen eskubideak kaltetzea saihesteko.

- Adostasuna: baimena ematen diola deialdia egin duen organo kudeatzaileari, administrazio eskudunean zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeko eta ziurtatzeko. Aurka eginez gero, prozeduran eskatzen diren dokumentu guztiak aurkeztu beharko ditu.

b) I. eranskina – Prestakuntza-planaren datuen inprimakia.

c) II. eranskina – Eskatzailearen curriculum, azalpen-memoria bat barnean hartuko duena, non zehaztuko baita zer erlazio duten egonaldiaren edo ikastaroaren prestakuntza-planaren edukiek eskatzailearen jardura profesionalarekin edo, eskatzailea langabezian badago, egin dituen ikasketekin.

d) Matrikula-inprimakia, 2023-2024 ikasturtekoa, non matrikulatutako kreditu guztiak eta matrikularen kostua jasoko baitira.

e) Eskabidea aurkezteko egunean eskatzailea arlo sanitarioan ari bada lanean, eskabidearekin batera lantokiko zuzendaritzaren baimena ere aurkeztu beharko du prestakuntza-jardura egiteko; baimen horretan adieraziko da prestakuntza-egonaldiak edo graduondoko ikastaroak eskatzailearen jardura profesionalarekiko duen egokitzapen-maila: handia, ertaina edo txikia. Baimen hori ez da beharrezkoa izango prestakuntza online egiten bada.

2.– Prestakuntza-jardura baterako baino gehiagorako dirulaguntza lortu nahi duten pertsonen jardura bakoitzerako eskabide bat aurkeztu beharko dute.

3.– Eskabideak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa, –<https://www.euskadi.eus/servicios/0086110> webgunean– eskuragarri dagoen formulario normalizatuaren bidez, hala ezarrita baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan

eta Administrazio Elektronikoa buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren 28. artikuluko lehenengo paragrafoan.

Eskabidea egin ondorengo izapideak, kanal elektronikoen bidez, baita jakinarazpen eta justifikazioak ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» gunearen bitartez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>

Helbide honetan eskura daitezke identifikazio eta sinadura elektronikorako Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa onartutako bitartekoak: <https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/>

Izapidetze elektronikoa ordezkari baten bidez ere egin ahal izango da, eta, horretarako, ordezkaritza hori Eusko Jaurlaritzaren Ahalordeen Erregistro Elektronikoa inskribatu beharko da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkariek>

4.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa da (1), agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

5.– Eskabideak ez baditu betetzen eskatutako baldintzak, hamar (10) egun emango zaizkio interesdunari, akatsak zuzendu ditzan eta, zuzendu ezean, eskaera bertan behera utzi duela ulertuko dela jakinaraziko zaio.

11. artikulua.– Justifikazioa.

1.– Dirulaguntzen Lege Orokorraren 30. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, gastuak egiaztatzeke, jatorrizko fakturak eta merkataritza-trafikoan baliozkoak diren edo administrazio-eraginkortasuna duten gainerako frogagiri baliokideak aurkeztuko dira. Faktura elektronikoen bidez ere egiaztatu ahal izango dira gastuak.

Gainera, jarduerak finantzatzeko, dirulaguntzaz gainera norberaren funtsak edo beste dirulaguntza edo baliabide batzuk jaso badira, justifikazioan egiaztatu beharko da zein diren funts horien zenbatekoak eta jatorria eta nola aplikatu diren diruz lagundutako jardueretan.

Jarduera gauzatu dela eta funtsak hura finantzatzeko erabili direla justifikatzeko, agiri hauek aurkeztu beharko dira Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzan, beken zein laguntzen kasuan:

- Gastuen zerrenda eta dagozkien fakturak eta ordainagiriak.
- Gogobetetze-mailaren galdetegia, III. eranskinean zehazten dena.
- Zentroak emandako titulua, gainditutako ETCS kredituen guztizko kopurua jasotzen duena; kreditu horiek bat etorri beharko dute dagokion prestakuntza-programan ikasturte batean ezarritako irakastorduen kredituekin.

2.– Justifikazio-agiriak hilabeteko epean aurkeztuko dira, diruz lagundutako jarduera gauzatzeko epea amaitzen denetik aurrera (azaroaren 17ko 38/2003 Legearen I. titulua eta lege horren erregelamenduaren II. titulua).

Epe hori luzatu ahal izango da, baldin eta onuradunek epea amaitu baino lehen eskatzen badute. Osasun Sailburuordetza baimena eman dezake justifikazioa aurkezteko ezarritako epea luzatzeko, betiere epearen erdia gainditzen ez bada eta hirugarrenaren eskubideei kalterik egiten ez bazaie (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32. artikulua).

Ezarritako justifikazio-epea igaro eta administrazio-organo eskudunari aurkeztu ez bazaio, organo horrek onuradunari eskatuko dio hamabost eguneko epe luzaezinean aurkez dezala, kapitulu honetan aurreikusitako ondorioetarako. Justifikazioa atal honetan ezarritako epean aurkezten ez bada, itzulketa eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean ezarritako gainerako erantzukizunak eskatuko dira. Justifikazioa atal honetan ezarritako epe gehigarrian aurkezteak ez du onuraduna salbuetsiko Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrearen arabera dagozkion zehapenetatik (887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrearen Erregelamendua onartzen duena, 70. artikulua).

12. artikulua.– Ordainketa.

Administrazioak dirulaguntzak ordaindu ahal izateko, onuradunak Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailaren Hirugarrenen Erregistro Telematikoan agertu beharko du.

Onuradunek esteka honetan kontsultatu, aldatu eta alta eman ahal izango diete banku-datuei: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/-/hirugarrenaren-datuen-aldaketa/>

Ordainketa bi zatitan egingo da:

a) Diru-zenbatekoaren ehuneko hirurogei (% 60) 8. artikuluan adierazitako epea igarotakoan ordainduko da.

Laguntzaren % 60 aldeztetik ordaintzearen salbuespena, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 51.1.h) artikuluan arabera egin ahal izango dena (Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen Legegintza Dekretua), justifikatuta dago onuradunek prestakuntza-jarduera hasi aurreko gastuei aurre egin behar izaten dietelako maiz.

b) Gainerako diru-zenbatekoa (% 40) 11.1 artikuluan adierazitako dokumentuak aurkeztu ondoren ordainduko da.

Ordaindutako zenbatekoei indarrean dagoen zerga-araudiak ezarritako atxikipena aplikatuko zaie, hala dagokionean.

13. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

Onuradunek indarreko lege- eta erregelamendu-arauak eta agindu honetako edozein artikuluko ezarritako baldintzak bete beharko dituzte, eta bere gain hartu honako konpromiso hauek:

a) Beka edo laguntza jaso dela adieraztea diruz lagundutako prestakuntza-jardueraren ondoriozko hedapen-dokumentu edo -ekintzetan.

b) Diruz lagundutako prestakuntza-jardueratik ateratako ondorioak erabiltzeko aukera ematea Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzari, bere hedapen eta komunikazio korporatiboko planak lantzeko, eta parte hartzea hark antolatzen dituen hedapen-ekintzetan.

Gainera, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50. artikuluan bildutako betebeharrak izango dituzte, eta, zehazki:

a) Jarduera burutzea edo dirulaguntza ematea zilegi egiten duen egoeran egotea.

b) Dirulaguntza ematen duen erakundearen aurrean egiaztatzea laguntza jasotzeko edo baliatzeko ezarritako betekizun edo baldintza guztiak betetzen dituela, eta egin beharreko jarduna egin duela.

c) Laguntza ematen duen erakundeak egin beharreko egiaztatze-lanak eta Kontrol Ekonomiko Bulegoak Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargura jasotako laguntzei

eta dirulaguntzei buruz egingo dituen kontrol-lanak onartu beharko dituzte, baita Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren araudi bereziak ezarritakoak ere.

d) Laguntza eman dion erakundeari jakinaraztea ea beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batetik bestelako dirulaguntza edo laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik jaso duen xede berbererako.

e) Laguntza eman dion erakundeari jakinaraztea dirulaguntza emateko kontuan hartu den edozein gorabehera objektibo nahiz subjektiboren aldaketa.

Era berean, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 14. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte, esaterako:

a) Jasotako funtsak zertan erabili den justifikatzeko agiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztapenak edo kontrolak egiteko erabil baitaitezke.

b) Jasotako funtsak itzultzea Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluan ezarritako kasuetan.

Onuradunei ezingo zaie dirulaguntzarik eta laguntzarik eman eta, hala badagokio, ordaindu, harik eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren organismo autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasitako eta oraindik abian den edozein itzultze- edo zigortze-prozedura amaitu arte, hala xedatuta baitago Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategineko 50.4 artikuluan.

14. artikulua.– Ez-betetzeak.

Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 53.1 artikuluan edo Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan aipatzen diren kasuetako batean badago dirulaguntza jaso duen onuraduna, edo agindu honetan nahiz aplika daitekeen gainerako araudian edo dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintza-ren bat betetzen ez badu, Osasuneko sailburuak ebazpen baten bitartez adieraziko du ordaintzeko dauden kopuruak jasotzeko eskubidea galdu dela, eta, hala badagokio, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli behar zaizkiola jasotako dirulaguntza eta aplika daitezkeen legezko interesak –dirulaguntza ordaindu zenez geroztikoak–, kontuan hartuta aipatutako legearen 37.2 artikuluan ezarritakoa, eta alde batera utzi gabe bidezkoak izan litezkeen gainerako ekintzak.

Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 53.4 artikuluan aurreikusita dagoen bezala, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 41.1 artikuluekin bat etorriz, dirulaguntza eman zuen organoak izango du eskumena itzultzeko prozedura ebazteko eta errebokatze erabakia hartzeko, bai eta, hala badagokio, jasotako zenbatekoa itzul dezan eskatzeko ere.

Zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat hartuko dira dagozkien lege-ondorioetarako, eta eran-tzukizunen araubidea Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 64. artikuluan ezarritakoa izango da.

15. artikulua.– Datu pertsonalak babesteari buruzko informazio-klausula.

Datu pertsonalak «Irakaskuntza eta Garapen Profesionala» deritzon tratamendurako erabiliko direla jakinarazten da, xedapen hauetan ezarritakoa betetzeko: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, Datu pertsonalen trata-menduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra); abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu

Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa, eta datuen babesaren alorrean indarrean dauden gainerako arauak. Hona tratamendu horren ezaugarriak:

Arduraduna: Osasun Sailaren Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza.

Helburua: eskabideak kudeatzea, eta irakaskuntzarako eta garapen profesionalerako Osasun Sailak deitutako laguntzen jarraipena egitea.

Legitimazioa: tratamendua beharrezkoa da interes publikoko misio bat betetzeko edo tratamenduaren erantzuleari emandako botere publikoak gauzatzeko (Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legea).

Hartzaileak: arlo horretan eskumenak dauzkaten administrazio publikoei eman ahalko zaizkie datu pertsonalak.

Eskubideak: datuak irispidean izateko, zuzentzeko edo ezerezteko eskubidea dute interesdunek, bai eta datuen tratamendua mugatzeko edo hari aurka egiteko ere, informazio gehigarrian azaldu bezala.

Informazio gehigarria: Datuen babesari buruzko informazio gehiago eskuratu daiteke webgune honetan: <https://www.euskadi.eus/clausulas-informativas/web01-sedepd/es/transparencia/089300-cap2-es.shtml>

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honen bidez iragarritako deialdiari eta berori garatzeko jarduketei bi xedapen hauetan ezarritakoa aplikatuko zaie oinarritzko araudi gisa: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartu zuen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak xedatutakoa aplikatuko zaie. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoaren arabera izapidetuko da prozedura.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Osasuneko sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua aipatutako aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko uztailaren 4a.

Osasuneko sailburua,
MIREN GOTZONE SAGARDUI GOIKOETXEA.

2023ko irailaren 1a, ostirala

I. ERANSKINA

PRESTAKUNTZA PLANAREN DATUEI BURUZKO INPRIMAKIA

Izartxoa (*) daramaten datuak nahitaezkoak dira

JARDUERAREN DATUAK

Jardueraren izena: *			
		Saila:	
Helbidea:		Solairua	Letra
Udalerrria:	Herrialdea:	PK:	
Telefona:		Faxa:	
Helbide elektronikoa: *			
		Amaiera-data:	
Tutorea (hala badagokio): *			
Tutorearen kargua: *			
Titulua: * ofiziala ☐ berezkoa ☐			
Prestakuntza-egonaldiaren edo graduondoko ikastaroaren prestakuntza-planera sartzeko url edo helbide elektronikoa, non honako hau jasoko den: egonaldiaren edo graduondoko ikastaroaren programa; haren edukia eta barne hartzen dituen			

BEKADUNAREN BIZILEKUA JARDUERAK IRAUN BITARTEAN

Helbidea:		Solairua:	Letra
Udalerrria:	Herrialdea:	PK:	

JARDUERAREN AURREKONTUA

Kontzeptua	Zenbatekoa
Lekualdaketen kasuan, ostatu-gastuak	
Matrikularen gastuak	
Bidaia-gastuak	
Seme-alabengatiko laguntza-osagarria	
Mantenu-gastuak (atzerrian egindako ikastaro eta prestakuntza-egonaldietarako baino ez)	
Eskatutako zenbatekoa, guztira	

II. ERANSKINA

EUROPAKO CURRICULUM VITAE EREDUA

1.– Informazio pertsonala

Lehen abizena:	_____	Bigarren abizena:	_____																																
Izena:	_____																																		
Helbidea	_____	Zk	Solairua: _____																																
Udalerria:	_____	PK:	<table><tr><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr></table>																																
Telefono	<table><tr><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr></table>											Mugikorr	<table><tr><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr></table>											Fax	<table><tr><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr></table>										
Posta elektronikoa:	_____																																		
Nazionalitatea:	_____	Jaiotza-data:	_____																																
Sexu	☐ Gizonezkoa ☐ Emakumezkoa																																		

Lan-esperientzia

Banan-banan deskribatu bete dituzun lanpostu aipagarriak, azkenekotik hasita.

Hasiera-data:	_____	Amaiera-data:	_____
Izandako lanbidea edo betetako kargua:	_____		
Eginkizun eta ardura nagusiak:			
Enpresaren edo enplegatzailearen izena:	_____		
Enpresaren edo enplegatzailearen	_____		
helbidea: Enpresa edo sektore	_____		

Hezkuntza eta prestakuntza

Banan-banan deskribatu egin dituzun titulazioak/ikastaroak, azkenekotik hasita.

Hasiera-data:	_____	Amaiera-data:	_____
Lortutako titulazioa:	_____		
Ikasitako irakasgai edo gaitasun profesional nagusiak:	_____		
Ikasketa-zentroarenen izena eta mota:	_____		
Zentroaren maila, sailkapen nazionalaren edo nazioarteko:	_____		

2.– Gaitasun eta konpetentzia pertsonalak

Hizkuntzak:

Adierazi zure ama-hizkuntza (ama-hizkuntza bat baino gehiago baduzu, guztiak adierazi):

Ama-hizkuntza: _____

Beste hizkuntza bat/batzuk - Autoebaluazioa:

Hizkuntza	Ulermena		Mintzamina		Idazmena
	Ahozkoaren ulermena	Idazkiaren ulermena	Ahozko elkarreragina	Ahozko gaitasuna	

Gaitasun eta kompetentzia sozialak

Deskribatu kompetentzia horiek eta adierazi zer testuingurutan garatu diren.

Antolakuntza-gaitasunak eta -kompetentziak

Deskribatu kompetentzia horiek eta adierazi zer testuingurutan garatu diren.

Gaitasun eta kompetentzia teknikoak

Deskribatu kompetentzia horiek eta adierazi zer testuingurutan garatu diren.

Gaitasun eta kompetentzia informatikoak

Deskribatu kompetentzia horiek eta adierazi zer testuingurutan garatu diren.

Gaitasun eta kompetentzia artistikoak

Deskribatu kompetentzia horiek eta adierazi zer testuingurutan garatu diren.

Beste gaitasun eta kompetentzia batzuk

Deskribatu kompetentzia horiek eta adierazi zer testuingurutan garatu diren.

Gidabaimena

- | | | | | | |
|-----------------------------|--------------------------------|---------------------------------|---------------------------------|----------------------------|------------------------------|
| ☐ AM | ☐ B | ☐ C1 | ☐ D1 | ☐ E | ☐ BTP |
| ☐ A1 | ☐ B + E | ☐ C1 + E | ☐ D1 + E | | |
| ☐ A2 | | ☐ C | ☐ D | | |
| ☐ A | | ☐ C + E | ☐ D + E | | |

Azalpen-memoria

**Azalpen-memorian zehaztuko da zer erlazio duten egonaldiaren edo ikastaroaren prestakuntza-pla-
naren edukiek eskatzailearen jarduera profesionalarekin edo, eskatzailea langabezian badago,
egin dituen ikasketekin.**

Dokumentuari buruzko argibideak

1.– Informazio pertsonala

Curriculuma nola bete jakiteko informaziorik nahi izanez gero, jo helbide honetara:
<http://europass.cedefop.europa.eu/europass/home/vernav/Europass+Documents/Europass+CV.csp>

2.– Gaitasun eta konpetentzia pertsonalak

Autobalorazio-taulak oinarritzat du Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren sei mailako eskala. Europako Kontseiluak egindakoa.

Taulak honako hiru maila orokor hauek ditu:

- oinarritzko erabiltzailea (A1 eta A2 mailak);
- erabiltzaile independentea (B1 eta B2 mailak);
- erabiltzaile aditua (C1 eta C2 mailak).

Atzerriko hizkuntzan zer maila duzun ebaluatzeko, irakur itzazu ondorengo deskribapenak eta adierazi zer maila dagokizun (Bikaina - C2, adibidez) zure CVren eremu egokietan (hizkuntza mintzatua ulertzea, irakurritako testuak ulertzea, ahozko elkarreragina, ahozko adierazpena, idaztea).

Ahozkoaren ulermena	A1	Gai naiz niri, nire familiari eta inguruko gauzei buruzko hitz aurrentenak eta oso oinarritzko esapideak ulertzeko, jendeak astiro eta argi hitz egiten duenean.
	A2	Gai naiz lexiko eta esapide erabilienak ulertzeko zuzenean dagozkidan arloetan (oinarritzko informazioa nitaz, nire familiaz, erosketez, bizitokiaz, lanaz).
	B1	Hizketa argia eta normala denean, haren ideia nagusiak ulertzen ditut, eguneroko gaiei buruzkoa bada (lantokiko, ikastetxeko, aisialdiko eta abarretako gaiei lotuta). Irrati eta telebistako saio askoren ideia nagusia ulertzen dut, gaur egungo gaiak edo interes pertsonal edo laboraleko gaiak jorratzen dituztenean, betiere haien ahoskera mantsoa eta argia bada.
	B2	Gai naiz konferentzia eta hitzaldi aski luzeak ulertzeko. Era berean, argudio konplexuak ere ulertzen ditut, baldin eta gaia gutxi-asko ezaguna badut. Ulertzen ditut telebistako albiste gehienak eta egungo gaiei buruzko saioak.
	C1	Gai naiz berbaldi luze bat ulertzeko, oso garbi egituratuta ez badago ere edo erlazioak oso esplizituak izan ez arren. Telebista-programak eta filmak neke handirik gabe ulertzen ditut.
	C2	Ez dut inolako arazorik edozein hizketaldi ulertzeko, ez zuzeneko, ezta komunikabideetako ere, baita jatorritzko hitzunen abiaduran hitz egiten dutenean ere, baldin eta bere hizkera-moduarekin ohitzeko denbora badut.
Idatziaren ulermena	A1	Gai naiz hitz eta izen ezagunak ulertzeko, baita esaldi oso sinpleak ere, adibidez iragarki, kartel eta katalogoetakoak.
	A2	Gai naiz testu labur eta oso sinpleak irakurtzeko. Gai naiz informazio jakin eta aurreikus daitekeena eguneroko dokumentu arruntetan bilatzeko, esate baterako iragarkietan, prospektuetan, menuetan eta ordutegietan. Gai naiz gutun pertsonal labur eta sinpleak ulertzeko.
	B1	Gai naiz hizkera arruntan idatzitako testutak edo nire lanari buruzkoak ulertzeko. Gai naiz gertaeren deskribapena edota sentimenduen eta desioen azalpena ulertzeko gutun pertsonaletan.
	B2	Gai naiz gaur eguneko gaiei buruzko artikulak eta txostenak irakurtzeko, egileak jarrera jakin bat edota ikuspuntu berezia erakusten duenean. Gai naiz gaur eguneko hitz lauako literatura-testuak ulertzeko.
	C1	Gai naiz gertakarietan oinarritutako testuak edo literatura-testu luze eta konplexuak ulertzeko eta estiloak bereizteko.
	C2	Gai naiz edozein testu-mota erraz irakurtzeko, baita abstraktuak eta egituraz edo hizkuntzaz zailak direnak ere. Adibidez, eskuliburuak, artikulak espezializatuak eta literatura-lanak.

2023ko irailaren 1a, ostirala

Ahozko elkarreragina	A1	Gai naiz modu sinplean elkarrizketa batean parte hartzeko, betiere solaskidea prest badago esan duena astiroago edo beste hitz batzuekin errepikatzeko, eta laguntzen badit esan nahi dudana esaten. Gai naiz berehalako premiei edo oso gai arruntei buruzko galdera errazak egin eta erantzuteko.
	A2	Gai naiz komunikatzeko jardura eta gai ezagunetan, informazio-trukea zuzena eta sinplea denean. Gai naiz informazio-truke labur-laburra egiteko, nahiz eta, oro har, ez dudan ulertzen elkarrizketa osoa jarraitzeko adina.
	B1	Gai naiz hizkuntza mintzatzen den herrialdera egindako bidaietan gerta daitezkeen egoera gehienei aurre egiteko. Gai naiz, prestatu gabe ere, elkarrizketetan parte hartzeko, gaiak ezagunak direnean, interes pertsonalekoak edo bizimodu arruntekoak (adibidez, familia, aisialdia, lana, bidaiak, egungo gertakariak...)
	B2	Gai naiz jatorrizko hitzunean bat-bateko elkarrizketetan normal komunikatzeko, nolabaiteko jartasunez. Gai naiz eztabaidetan era aktiboan parte hartzeko eta nire iritzia azaldu eta defenditzeko, egoera ezagunetan.
	C1	Gai naiz natural eta jarioz hitz egiteko, esapide egokien bila nabarmen luzatu gabe. Badakit hizkuntza gizarte- edo lanbide-erlazioetan malgu eta eraginkor erabiltzen.
	C2	Gai naiz ahalegin handirik gabe, edozein elkarrizketa edo eztabaidatan parte hartzeko. Esamoldeak eta lagunarteko hizkera ondo erabiltzen ditut. Ideiak jarioz eta ñabardura guztiekin adierazten ditut. Zailtasunen bat badut, gai naiz atzera egiteko eta hutsunea trebezia konpontzeko solaskidea ia konturatu gabe.
Ahozko adierazpena	A1	Gai naiz esaldi eta esapide sinpleak erabiliz nire bizilekua eta jende ezaguna deskribatzeko.
	A2	Gai naiz zenbait esaldi eta esapide erabiltzeko, honelakoak era sinplean deskribatzeko: nire familia eta beste zenbait lagun, nire bizimodua, ikasketak, oraingo edo lehengo lana.
	B1	Gai naiz esaldiak era sinplean josteko, honelakoak deskribatzearren: esperientziak, gertaerak, ametsak, itxaropenak eta helburuak.
	B2	Badakit zehatz eta argi hitz egiten nire espezialitatearekin zerikusia duten gai askori buruz.
	C1	Gai naiz deskribapen argiak eta xeheak egiteko gai konplexuei buruz, horiekin lotutako gaiak integratuz, zenbait puntu garatuz eta berbaldia egoki amaituz.
	C2	Gai naiz deskribapen edo argudioen azalpen argiak jarioz egiteko eta testuinguruari egokitutako estiloan, horretarako egitura logiko eta eraginkorrak erabiliz, entzuleari ideia nagusiei erreparatzen eta haiek gogorarazten laguntzeko.
Idatzizko adierazpena	A1	Gai naiz postal laburra eta errazak idazteko, esaterako zoriak ematekoak. Gai naiz nire datu pertsonalak inprimaki batean idazteko. Adibidez, izena, nazionalitatea edo helbidea hoteleko erregistro-orrian.
	A2	Gai naiz berehalako premiei buruzko ohar eta mezu labur eta sinpleak idazteko. Gai naiz gutun pertsonal oso sinpleak idazteko, adibidez eskerrak ematekoak.
	B1	Gai naiz testu sinpleak eta koherenteak idazteko, gai ezagunen edo interes pertsonalekoen gainean. Gai naiz gutun pertsonalak idazteko, nire esperientziak eta irudipenak adieraziz.
	B2	Gai naiz testu argiak eta xeheak idazteko, nire intereseko gai askoren inguruan. Gai naiz idazlan bat edo txosten bat egiteko informazio jakin bat adieraziz edota iritzi baten aldeko edo kontrako arrazoiak emanez. Gai naiz gutunak idazteko, zenbait gertaerari eta esperientziari ematen diedan garrantzia nabarmenduz.
	C1	Gai naiz testu argi eta ongi egituratuak osatzeko, neure ikuspuntua luze-zabal adieraziz. Badakit gai konplexuak adierazten gutun, idazlan edo txostenetan, garrantzizkoen iruditzen zaizkidan puntuak azpimarratuz. Gai naiz hartzaileari egokitutako estiloa erabiltzeko.
	C2	Gai naiz testu argiak jartasunez idazteko, estilo egokian. Gai naiz gutun, txosten edo artikulua konplexuak idazteko, argudioak egitura logiko eta eraginkorraren bidez antolatuz, irakurleak puntu nagusiak uhlertu eta gogoan har ditzan. Gai naiz idazlan profesionalak edo literatura-lanak idatziz laburtzeko eta kritikatzeko.

*Azalpen-memoria: Nahitaez bete beharrekoa.

III. ERANSKINA

GOGOBEKETASUN-MAILARI BURUZKO GALDETEGIA

Izen-abizenak:		NA	
Sexu	☐ Gizonezkoa	☐ Emakumezkoa	
Prestakuntza-jardueraren deskribapena:			
Prestakuntza-jarduera ematen duen zentroa:			
Hasiera-eguna:		Amaiera-eguna:	
Modalitate			

- ☐ Nire lanpostua hobeto betetzeko egokia delako.
- ☐ Nire lan-baldintzak hobetzeko.
- ☐ Etorkizunean baliagarri izango
- ☐ zaidalako. Nire zerbitzuaren
- ☐ beharrengatik.

Beste arrazoi batzuegatik. Zein?

2.- Zure iritziz, nolakoa da

- ☐ Laburra ☐ Egokia ☐ Luzea

3.- Prestakuntza-jardueran garatutako baldintzei eta edukiei dagokienez, 1 eta 5 arteko puntuazioa eman honako alderdi hauei:

	1	2	3	4	5
Instalazioak (ikasgela, altzariak, ingurune-baldintzak)	☐	☐	☐	☐	☐
Emandako dokumentazioa	☐	☐	☐	☐	☐
Irakasleen prestakuntza-gaitasuna	☐	☐	☐	☐	☐

1.- BATERE EZ / BATERE EGOKIA EZ 2.- GUTXI / EZ OSO EGOKIA 3.- ERDIPURDIKOA 4.- ASKI / ASKI EGOKIA 5.- ASKO / OSO EGOKIA

4.- Prestakuntza-zentroari dagokionez, 1 eta 5 arteko puntuazioa eman

	1	2	3	4	5
Bekaren/laguntzaren xede diren ikasketak egin dituzun erakundea behar duzun espezializazioari?	☐	☐	☐	☐	☐
1.- BATERE EZ / BATERE EGOKIA EZ 2.- GUTXI / EZ OSO EGOKIA 3.- ERDIPURDIKOA 4.- ASKI / ASKI EGOKIA 5.- ASKO / OSO EGOKIA					
Adierazi zergatik:					
Besteren batek espezializazio horri buruzko ezagutzak handitu nahi izanez gero, zentro horretan egitea aholkatuko zenuke?					
☐ Bai ☐ Ez					
Argudia itzazu erantzunaren arrazoiak:					

5.- Prestakuntza-jarduerak zuretzat izandako emaitzei dagokienez, 1 eta 5 arteko puntuazioa eman honako alderdi hauei:

	1	2	3	4	5
Ikasitako ezagutzak	☐	☐	☐	☐	☐
Zure lana egiteko baliagarritasuna	☐	☐	☐	☐	☐
Ezagutzak praktikan jartzeko aukera	☐	☐	☐	☐	☐
1.- BATERE EZ/BATERE EGOKIA EZ 2.- GUTXI/EZ OSO EGOKIA 3.- ERDIPURDIKOA 4.- ASKI/ASKI EGOKIA 5.- ASKO/OSO EGOKIA					

6.- Balorazio osoa; 1 eta 5 arteko puntuazioa eman honako

	1	2	3	4	5
Orain arte emandako erantzunen osagarri, baloratu prestakuntza-jarduerarekin duzun gogobetetze-maila osoa	☐	☐	☐	☐	☐
1.- BATERE EZ / BATERE EGOKIA EZ 2.- GUTXI / EZ OSO EGOKIA 3.- ERDIPURDIKOA 4.- ASKI / ASKI EGOKIA 5.- ASKO / OSO EGOKIA					
Zehaztu ezazu, mesedez, amaitu berri duzun prestakuntzaren zer alderditan izan duzun gogobetetasunik handiena:					
Adieraz, halaber, zein alderdi den gutxien gogobete zaituena eta, zure ustez, hobetu beharko litzatekeena.					

2023ko irailaren 1a, ostirala

	1	2	3	4	5
Aberaste pertsonala	☐	☐	☐	☐	☐
Hartutako prestakuntzaren gainerako erabilera-maila	☐	☐	☐	☐	☐
Uste al duzu prestakuntza-ekintza eraginkorra izan dela?	☐	☐	☐	☐	☐

1.- BATERE EZ / BATERE EGOKIA EZ 2.- GUTXI / EZ OSO EGOKIA 3.- ERDIPURDIKOA 4.- ASKI / ASKI EGOKIA 5.- ASKO / OSO EGOKIA

Kanpoan egindako egonaldian, izan al duzu eragozpenik beka betetzeko eta zure ikasketak Normaltasunez egiteko?

☐ Bai ☐ Ez

Zein?

Zure ustez, nola lagundu dio jaso duzun prestakuntzak zure gaitasun eta rapen profesionalari?

.....(e)n,(e)(a)n

Sinadura

IV. ERANSKINA

ARLO SANITARIOKO PROFESIONALAK PRESTATZEKO LAGUNTZA-
ESKABIDEA

Izartxoa (*) daramaten datuak nahitaezkoak dira

NORK AURKEZTEN DUEN ESKABIDEA*

☐ Titularra ☐ Ordezkarria

DATU PERTSONALAK

TITULARRA

Izena *	Identifikazio-agiria *	Zenbakia *
Lehen Abizena *	Bigarren Abizena *	Sexua *
		☐ Gizon ☐ Emakume
Udalerria *	Probintzia	Tel. Finkoa
		Tel. Mugikorra

ORDEZKARIA

Izena	Dokumentu Mota	Zenbakia
Lehen Abizena *	Bigarren Abizena *	Sexua *
		☐ Gizon ☐ Emakume
Udalerria *	Probintzia	Tel. Finkoa
		Tel. Mugikorra

Eskatzaileak zer lan-harreman duen Euskadiko sistema sanitarioarekin eskabidea aurkeztu eta laguntzak ematen diren arteko aldian:

- ☐ Langile finkoa izatea edo espezialitatea –egoiliar gisa– amaitua izatea deialdi hau argitaratu aurreko bi (2) urteetan
- ☐ Bitartekoa
- ☐ Behin-behinekoa, ordezkoa, norberaren kontura lan egiten duten pertsonak eta sektore pribatuko soldapenekoak
- ☐ Langabezian

JAKINARAZPENA *

☐ Elektronikoki

JAKINARAZPEN ELEKTRONIKORAKO ABISUA *

Helbide elektronikoa (puntu eta koma (;) bidez bereizita) *

Mugikor zk. (sms) (puntu eta koma (;) bidez bereizita) *

JAKINARAZPEN ETA ABISUAK HIZKUNTZA *

☐ Euskara☐ Gaztelania

BESTE DATU INTERESGARRI BATZUK

Titularraren zerga-obligazioak: Zein lurraldetako / probintziatako zerga-administrazioak dauka informazio hori?* _____

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK

- ☐ Ez naiz jasotzen ari xede horrekin berarekin administrazio publiko edo erakunde pribaturen baten dirulaguntzarik
- ☐ Laguntza eskatu diot administrazio publikoren bati edo entitate pribaturen bati, eta eman egin didate (puntu honetako datuak eranskinean zehaztu behar dira)
- ☐ Laguntza eskatu diot beste administrazioen bati edo erakunde pribaturen bati, eta ebazteko zain dago (puntu honetako datuak eranskinean zehaztu behar dira)
- ☒ Ez dut ordaintzeke ditudan laguntzak itzultzeko betebeharririk
- ☒ Ez dut zigorrik jaso, ez penalik ez administratiborik, laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzea galarazten didanik.
- ☒ Ez daukat inolako legezko debekurik dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko ezgaitzen nauenik, berariaz kontuan hartuta sexu-diskriminazioagatik gertatutakoak.
- ☒ Ez daukat eragozpenik diruz lagundutako prestakuntza-jarduerei ardura egokia eskaintzeko, ordaindutako lana edo beste edozein egiteko edukitzeagatik.
- ☒ Aipatutako betebeharrak betetzen jarraituko dut, aitortza edo ariketa horri dagokion aldiaren, eta baldintzen edozein aldaketa jakinaraziko zaio administrazioari, baldintzak osorik ez betetzea eta hirugarrenen eskubideak kaltetzea saihesteko.
- ☒ Benetakoak dira eskabide honetan eta horri erantsitako dokumentuetan agertzen diren datuak.

BAIMENAK

Baimena ematen diot deialdi honen organo kudeatzaileari administrazio eskudunean honako hauek egiaztatzeko edo ziurtatzeko, bide telematikoen bidez, edo, hala badagokio, eskura daudenen bidez:

Zerga-betebeharrak betetzen dira:

☐ Bai ☐ Ez

Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen dira:

☐ Bai ☐ Ez

Pertsona fisiko eskatzailearen nortasun-datuak:

☐ Bai ☐ Ez

Eskatzailearen legezko ordezkariaren nortasun-datuak:

☐ Bai ☐ Ez

Errolda-ziurtagiria:

☐ Bai ☐ Ez**Oharra: Aurka eginez gero, prozeduran eskatzen diren dokumentu guztiak aurkeztu beharko dira.**

DATU PERTSONALEN BABESA

Datu pertsonalak babesteari buruzko informazio-klausula.

Arduraduna: Osasun Saila; Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza.

Helburua: Eskabideak kudeatzea eta irakaskuntzarako eta garapen profesionalerako Osasun Sailak deitutako laguntzen jarraipena egitea.

Legitimazioa: Tratamendua beharrezkoa da interes publikoko misio bat betetzeko edo tratamenduaren erantzuleari emandako botere publikoak gauzatzeko (Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legea).

Hartzaileak: Arlo horretan eskumenak dauzkalen administrazio publikoei eman ahalko zaizkie datu pertsonalak.

Eskubideak: Informazio gehigarrian azaltzen den bezala, eskubidea duzu datuak irispidean izateko, zuzentzeko eta ezerezteko eta datuen tratamendua mugatzeko edo aurkaratzeko.

Informazio gehigarria: Datuen babesari buruzko informazio gehiago eskuratu daiteke webgune honetan: <https://www.euskadi.eus/rgpd/0086110>

_____ (e)n,

_____ (e)(a)n

(Interesdunaren edo ordezkariaren sinadura)

DOKUMENTAZIO BURUZKO ARGIBIDEAK

Eskatzaileak bere izenean badihardu, «ESKABIDEA NORK AURKEZTU DUEN» atalean «Titularra» aukera hautatu behar du, eta titularrari dagozkion datuak bete behar ditu «DATU PERTSONALAK» atalean. Titularraren sinadura.

Eskatzaileak beste pertsona baten izenean badihardu, «ESKABIDEA NORK AURKEZTU DUEN» atalean «Ordezcaria» aukera hautatu behar du, eta ordezkatzeko duen pertsonari dagozkion datuak bete behar ditu «DATU PERTSONALAK» atalean, eta bereak, berriz, «Ordezcaria» atalean. Ordezkariak sinatu behar du eskabidea, eta ordezkarien erregistroan inskribatua egon behar du.

Eskatzaileak, dirulaguntzarako eskabidea aurkeztuta, baimena ematen dio organo emaileari zuzenean egiazta ditzan Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduaren 18. eta 19. artikuluetan aurreikusitako inguruabarrak. **Eskatzaileak berariaz ukatu ahal izango du baimena.** Kasu horretan, ziurtagiria aurkeztu beharko du, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 22. artikuluan aurreikusitako balditzetan.

JAKINARAZPEN- ETA KOMUNIKAZIO-BIDEAK

Elektronikoa: «Nire kudeaketak» ataleko jakinarazpenen eta komunikazioen ontzira bidaliko dira. Horra jo ahal izateko, ziurtagiri elektroniko onartu bat eduki beharko duzu.

Oharra: 10 egun igarotzen badira jakinarazpen batera jo gabe, baztertu egindo da, izapidea egintzat joko da, eta prozedurak aurrera jarraituko du.